

Eva Lopez de Arroyabe

«Esnezaleok gure produktua dibertsifikatu beharko genuke»

ArabaEsnea kooperatibako kide da Eva Lopez de Arroyabe. Larrea kontzejuan du abeletxea, bikotearekin. Kooperatibak Gasteizen eta Arabako hainbat herritan jarritako esne-makinen atzean kalitate onean eta trazabilitatean oinarrituriko proiektua dagoela dio: “Nire behiak ondo bizi dira”.

URKO APAOLAZA

Argazkia: Alex Larretxi

ESNEKIEN SEKTOREAK inoiz ikusi ez den krisia bizi duenean bildu gara Eva Lopez de Arroyabarekin. Arabako UAGA eta EHNE konfederazioko komite exekutiboko kide ere bada, eta egoera oso-oso larria dela dio abeltzainak: “Esnearen prezioek horrela jarraitzen badute, apustu egiten dizut urte bukaerarako esplotazio asko desagertu egingo direla”. Hain zuzen, horrelako egoerei aurre egiteko sortu zuten ArabaEsnea kooperatiba hamar ganaduzalek duela urte eta erdi, eta orain baserriko esnea makina bidez zuzenean saltzeari ekin diote arrakasta handiz.

Kooperatibarekin hasi zintenean esnearen prezioa oso altu zegoen.

Duela urte eta erdiko egoera espejismo bat zen. Mugimendu asko zegoen eta jendeak ikusten zuen enpresa batzuetan gehiago irabazten zela... Kuriosoena da gu ez ginela beste enpresa batera joan diru gehiago irabazteko, baizik eta gure esnearen jabe izan nahi genuelako.

Beraz, interes ekonomikoa ezik, filosofia aldaketa dago. Horrek zer eragin dauka zuen produkzio sisteman?

Eragina erabatekoa da, batez ere orain ez daukazulako segurtasunik. Arriskatu egin gara, gure etxea eta baserria amildegi batean jarri ditugu. Baina



Eva Lopez de Arroyabe Gasteizko Abasto Plazako makinan (botilak berrerabili egin daitezke). Beste esnezale batzuk ere vending sistema berarekin ari dira Elizondon eta Ordizian.

orain beste modu batera bizi dugu, libre gara gure esnearekin zer egin aukeratzeko, eta negoziatzeko gaitasuna daukagu.

Eta baserriaren funtzionamenduan, zer aldatu da?

Gauza askorik ez. Orain gehiago arduratzen gaitu esnea kalitate onekoa izateak, lehen ere hala zen, baina orain ia egunero egiten ditugu analisiak. Instituzioetatik beti bultzatzen izan gaituzte gehiago produzitzera, lehia-korrek eta espezialistak izatera, baina alde horretatik galduta gaude. Gure asmoa da zuzenean saltzea, eta egia esan ez da hain konplikatu. Nik behi gutxiago izan nahi nituzke, nire familia hipotekaturik ez edukitzeko. Dibertsifikatzera jo behar dugu, beste bizimodu bat izateko.

Produkzio intentsibotik ihes egin nahi duzue. Esan liteke sistema ekologikoa dela, jasangarria den heinean?

Esplotazio familiarak gara. Araban batzuek beste 80 buru ditugu ganaduzaleok, asko dirudi, baina behi guztientzako lekua dago. Gainera, autokontsumitu egiten dugu, lur asko dago nork bere belarra eta artoa produzitzeko, ez dugu kanpoko janariaren zain egon beharrik. Ekologikoa baino, familiarra dela esango nuke.

Beste zentral batzuk ere kooperatiba dira. Ez al duzue, ArabaEsneak horiek bezala bukatuko duen beldurrik?

Kooperatibek funtzionatzen dute ganaduzaleek zuzentzen dituzten hei-

nean. Sektoretik kanpoko norbaitek agintzen duenean zentzua galtzen du, denok ditugu buruan hori pasatu zaien makina bat kooperatiba. ArabaEsneak gauza bat dauka ona: sozio gutxi garela. Ez dugu planteatu ere egin bazkietza handitzea, kooperatiba handiek bezala bukatzerik ez dugu nahi, gure produktuaren gaineko kontrol osoa nahi dugu.

Lehenago dibertsifikazioa aipatu duzu.

Batez ere esnea merkaturatzeko moduaz ari nintzen: frogak egiten ari gara katering enpresak zerbitzatzeko, esnea ontzietan saltzea ere pentsatzen ari gara... ArabaEsnea merkatu lokala landu nahi duen proiektu zabalagoa da. Esne-makinena ondo dago, baina ez da soluzioa. Orain 25.000 litro produzitzen ditugu egunero hamar ganaduzaleok, eta horietatik 1.500 saltzen ditugu makinetan, pasteurizatu ondoren –exijitzen diguten tratamendu minimoa da–. Gainerakoa, oraindik, zentralera eraman behar izaten dugu gordinik. Han ez ligukete esne pasteurizatua onartuko.

(...?)

Brick-etan UHTa saltzen da, hilabeteetan kadukutzen ez den esne esterilizatua. Zentralera eraman orduko esnea desnatatu egiten dute eta gero beste koipe bat sartzen diote eskaini nahi duten produktuaren arabera. Gure esnea aldis, esnea da. Goizeko 6:45etan behiak jezten ditugu eta pasteurizatu ondoren egunean bertan dago salgai makinetan.

Zuen esneak “trazabilitatea” duela esan izan duzue. Azaldu ezazu hori.

Badakigu zehazki zer pasatu den pro-

“Esneak gainezka egingo digu”

Bruselak esnekien kuota 2015ean liberalizatuko omen du. Beraz, ez da mugarik izango esnea produzitzeko eta prezioa oraindik gehiago jaitsi daiteke: “Orain supermerkatuetan esne kaxa asko dago, baina kuota liberalizatzen dutenean esneak gainezka egingo digu”, dio Eva Lopez de Arroyabek. Bere esanetan, Europar Batasunak neurri hori hartuko balu, esne zentral handiek Frantziako eta Europa ekialdeko esnea erosiko lukete “dumping ilegala egingo lukete, esnea produkzio kostuen azpitik erosiz”.

Bruselaren erabakia etorri da esne sektorea krisi bortitzean dagoenean. Ondorioz, Europako esne produktoreak protesta ugari egiten ari dira, eta Ipar Euskal Herrian ere grebari ekin diote esnezaleek ELBk deituta. EHNEK Ipar Euskal Herriko boikota babestu du eta aztertzen ari da Hego Euskal Herrian zein neurri hartu. Uztailean jada egin zituzten mobilizazioak Espainiako Estatuan, COAGek deituta: “Esnezaleak goizeko 7:00etarako Santanderrren izan behar zuten hori txapela kentzeko modukoa da”, dio abeltzainak.

duktuarekin, gure behiek jaten dutenetik esnea saldu arte. Brick bat erostean trazabilitatea zalantzan dago, ez dakizulako ibilbide horretan esnearekin zer egin duten.

Instituzioetatik gehiago produzitzera bultzatu izan gaituzte beti baina alde horretatik galduta gaude

Zuen esnearen kontsumitzaileak mentalitatea aldatu behar du kalitatea lehenetsiz. Krisi garaiotan ez da erraza izango...

Ni kontsumitzaile ere izan naiz, eta lehenago markako esnea erosten nuen. Inoiz ez duzu pentsatzen ganaduzaleari edo tomateak lantzen dituen horri zenbat ordaintzen dioten; horrek arduratuko bagintu buelta emango genioke egoerari. Momentu honetan zentralak 0'28 ordaintzen digute esne litroko eta produkzio kos-

tua 0'40tik gora dago... diru-laguntzetatik bizi gara!

Diru-laguntzena bi ahoko aiztoa izan liteke. Dependentsia horretatik atera nahi al duzue zuen kooperatibarekin?

ArabaEsneak nahi duena da prezio duina kobratu, bizitzeko modukoa.

Baina galerak dituzuela diozuenean, diru-laguntzak ez dituzue sartzen tarte horretan, ezta?

Dirulaguntzek nolabait irauteko balio dute, baina oraingo prezioak dauden moduan egonda... Esne sektoreak inoiz bizi izan duen momentu larriena bizi du, duela 20 urteko prezioetan gaude, eta behiek ez dute duela 20 urte bezala jaten, ondo bizi dira. Bestalde, dirulaguntzen kontuarekin askotan ez da aintzat hartzen baserri-tarrok mendi publikoari egiten diogun zerbitzua. Aurrekoan, adibidez, sute bat izan zen Trebiñun, eta nekazariak izan ziren traktoreekin suebakiak egiten aritu zirenak. ■

